



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2018KO AZAROAREN 15EKO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Premiazko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2018.11.15.
Ordua: Goizeko 10:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Igor Ugalde Salazar jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Bortzirietako euskara Mankomunitateko ordezkariaren izendapena.

Ikusirik aztergaiaren premia eta beharra, zinegotziek, aho batez, bilera egitea erabaki dute.

1.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIAREN IZENDAPENA.

Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatu behar dira.

Kontuan hartuz Mentxu Peña Lizarazu andrea dela Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Arantzako Udaleko ordezkaria.

Kontuan hartuz Mentxu Peña Lizarazu andreak gaixotasun bajaran dagoen bitartean ez duela karguan segituko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Bortzirietako Euskara Mankomunitateko ordezkaria Ander Almandoz Indakoetxea jauna izendatzea eta, ordezkoa, M.Carmen Peña Lizarazu andrea.

Bertzerik gabe, goizeko 10:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

